



BERTSO MARRAZKIA - ETXEA

Marrazki hau ez dugu erakutsiko,
jolas amaierara arte.

Kide batek (irakaslea izan daiteke),
marrazki hau deskribatuko du,
kopletan (ikus koplak sorta,
hurrengo orrian); gainerako
partaideek, koplak entzun ahala,
deskribatzen dena marraztu
behar dute.

Amaieran, nork bere marrazkia
erakutsiko du: ea nor hurbildu
den gehien irudi honetara!



Doinua: Goizian goiz jeikirik

Neurria: Lauko txikia (hg) / Bi puntuko txikia (ip)

MARRAZKIA DESKRIBATZEKO KOPLAK

1 Paisaia bat da eta jar zazu **arreta** pixkanaka marraztu behar duzu **eta**.

2 Orrian behealdea belardi bat **denez** koloreztatu zazu zuk berde **ilunez**.

3 Hartu marroia eta ezkerreko **aldean** egin zazu etxe bat belardi **gainean**.

4 Etxeak ezkerrean du bere **atea** marraztu behar duzu karratu, **tentea**.

5 Ta hiru leiho ditu: bi goian, bat **behean** horiz margotu behar dira **barrenean**.

6 Teilatu eskuinean tximinia **dauka** ke grisa botatzen du **zirriborratuta**.

7 Belardian gainean ta **eskuinetara** etxearen neurriko zuhaitza ere **bada**.

8 Enborra marroia du berdeak **orriak** ta hostoen artean gerezi **gorriak**.

9 Belardian gainean tente, zortzi **lore** petaloak naranja ta zurtoinak **berde**.

10 Zuhaitz gainean, beltzez, hegaka lau **kaio** ta bakoitzari “eme” (m) forma hartzen **zaio**.

11 Ezkerreko ertzean horiz **eguzkia** bederatzi marrekin bota du **izpia**.

*tralara-lala, tralara-lala,
tralara-lara-lara,
ZER MODUZ ATERA DA
ZURE MARRAZKIA?*